

Almen

GURA

BATU

IZEN

ai arizmendi
ikastola

GURA (6 - 10 urte)

Sormenean, manipulazioan eta egoera errealean oinarrituz mundua ulertzen hasteko oinarriak lantzen hasten da haurra GURA egitasmo pedagogikoan, euskaratik eta euskaraz. Haurrak bere adinkideekin sozializatzeko beharra sentitzen duen garai honetan Ikastolak kooperazioan jarduteko testuinguru ugari eskaintzen dizkio, pedagogiaren zerbitzura dauden espazio eraldatuen bidez.

BATU (10 - 14 urte)

Pertsona-eredua garatzen laguntzeko testuingurua eskaintzen die proiektu honek ikasleei, ikaskuntza-esperientziak biziz eta gizartearen eraldaketan parte hartuko duten herritar aktiboak garatzen lagunduz.

IZEN (14 -18 urte)

Ikaslea hainbat egoera eta erronka ezberdinen aurrean jartzen dugu hezkuntzaren etapa honetan. Norbere buruaren eta inguruaren ezagutzatik abiatuz, erabaki kontzientek hartuko dituzten herritar euskaldun konprometituak garatzen laguntzea dugu helburu Arizmendi ikastolan.

IBILBIDE JARRAIA ETA PROIEKTU BAKARRA



JOSE
ARANA

EUSKALDUNTASUNETIK

KOMUNITATEA ERALDATZEN



ALMEN

BASABEAZPI



NATURAN HEZTEN

KONFIANTZAZKO

ETA SEGURTASUNEZKO BEGIRADA



Ione Uriarte Iñurrategi

Ikasle ohia

“Gauza asko ikasi ditugu bizitza guztian, Jose Arangatik hasi eta Almenera arte. Bertan momentu oso oso onak pasa ditugu. Bizitzarako erremintak jaso ditugu, akademikoak ez ezik, bizitzarako ere baliagarriak direnak. Aretxabaletako eta Arrasateko lagunak egin ditugu. Ikastola elkarlekua izan da”.

● IKASTOLA ●

Haritz Igartua Mendieta

Gurasoa eta ikasle ohia


“Ikasle ohia naiz eta oso oroitzapen onak ditut, horregatik ekarri genituen hona. Gainera, ikastola, Euskal Herri osora begirako proiektua da”.

● KONFIANTZAREN PEDAGOGIA ●






ikastolenelkartea


GIZATASUNA
LANEAN
MONDRAGON



ALMEN GUNEA

Torrebaso 18, 20540 Eskoriatza
Tel. 943 77 20 25
niraola@arizmendi.eus
www.arizmendi.eus


ikastola

